

TXAKURKROSA

Oarsoaldean

Patxi Azpiazu



Ezin dut data zehatzik jarri, hilabete asko pasa ziren egiten nuen aktibitatea kirol modalitate bezala antolatuta zegoela jakin nuen arte.

Gauza asko bezala, beste herrialdeetan egiten dutena, asmatzen dutena ... guregana urte batzuk geroago iristen da. Baina gure kasuan kasualitatez aurkitu nuen kirol hau. Etxe inguruko mendietan barrena korri egitera irteten nintzenean; garai hartan nuen txakurra nirekin etortzen zen. Eta halako batean nekearen eraginez eskuarekin lepoa heldu eta bere indarraren laguntzarekin aldapa haiek errazago igotzen nituela konturatu nintzen. Hurrengo egunean eskuak libre izateko asmoarekin soka bat gerrira eta beste muturra txakurraren lepora lotu nuen, eta berriro ere ondo asmatu genuen; askoz erosoago korri egiten nuela konturatu nintzen. Baina txakurrak gehiegi tiratzen zuen eta lepokoak ito egiten zuen, beraz gai hori konpontzeko beste zerbait asmatu behar genuen. Zaunka dendako Juanperekin hitz eginda arazoaren konponbidea aurkitu genuen. Berak azaldu zidan elurretako lera txakurrek arnes berezi batzuek erabiltzen zituztela eta haietako batekin agian zerbait moldatuko genuela. Eta Internet bidez lortu nuen arnes berezi horietako bat, baita niretzako gerriko berezia ere, eta azken hori txakurra eta ni lotzeko soka elastiko amortiguatzaile batez hornituta (txakurraren tiraldiek bizkarrean kalte ez egiteko).

“Fruto del azar, corriendo por los montes de Errenteria junto a mi perro Frodo, descubrí una actividad deportiva que resultó ser un deporte reglamentado y federado, que en poco tiempo ha ganado muchos adeptos en nuestra provincia”.

Eta material berriarekin korrika saio eroso eta ugari asko egin genituen, biok bakarrik.

Baina halako batean, berriro Internet bidez, Burgoseko herrixka batean txakurrarekin lotuta korri egiteko lasterketa antolatu zutela jakin nuen. San Adrian de Juarros, herri txikia izan arren, beste askori aurre hartu zien txakurkrosean. Han konturatu nintzen nik egiten nuen aktibitatea kirol bezala eratuta zegoela, eta gainera estatu mailan lasterketa batzuk ere antolatzen zirela. Gehienak Katalunian eta Madrilen.

Baina itzul gaitzen San Adrianera. Lasterketa 2006. urteko abenduaren 3an izan zen. Neguko egun hotz eta euritsu bat zen eta nire ama (Begoña) eta alaba (Kleo) botilero nituela eta Frodo (gure lehen Dobermana) laguntzaile, hantxe azaldu ginen, lasterketaren 10 kilometroak betetzeko asmoz. Eta ondo bete ere, helmugan zortzigarrenak izan ginen eta gure adin kategorian 2.ak.

Hura bai poza, guztiena, nirea, familia-rena.... Kirol berria eta lehen lasterketan podi-mera igotzea lortu genuen eta etxerako lehen garaikurra irabazi.

"...una vez conseguido el material necesario (arnés, línea de tiro, zapatillas de trail...) nos presentamos en la 1ª edición del canicross de San Adrián de Juarros (2006), consiguiendo el 2º puesto en el pódium. Un magnífico resultado para la primera participación en una competición..."

Bazirudien hainbeste kirol egin eta gero (txirrindularitza, pista, triatloia, eskalada...) aurkitu genuela gure gustuko kirol bat.

Emaizta horrek animaturik, hurrengo lasterketan parte hartzea erabaki genuen eta bi aldiz pentsatu gabe hegazkina hartu eta Palma de Mallorkara joan ginen 2007 urteko urtarrilaren 14an antolatzen zuten 1. txakurkrosean parte hartzeko asmoz. Nirekin korri egiteko beti prest zegoen Frodo etorri zen, baina laguntzaileak aldatu egin nituen, bidaia honetan nire anaia Imanol izan zen laguntzaile. Eta berriro emaitza ezin hobea: 50 korrikalariren artean 4.ak sailkatu ginen, eta gure adin mailan 1.ak. Ezin hobeto, gure bigarren lasterketa izateko.

"...con la ayuda de mi hermano Imanol y de Frodo decidimos saltar el charco y nos plan-

tamos en la 1ª edición del canicross de Palma de Mallorca (2007), resultando vencedores de nuestra categoría y 4º en la general de un total de 50 corredores..."

Emaizta horien harira ETBko Juanan Legorburuk kirol berri hau ezagutu zuen eta telebistan inoiz egin den lehenengoetako erreportajea egin zuen, 2006. urtean "Frodo" eta ni ardatz hartuz.

Erreportaje hau jende askok ikusi zuen eta haietako bat Lezoko Iban Angulo izan zen, eta berehala nirekin kontaktuan jarri zen eta elkarrekin entrenatu eta lasterketetara joaten hasi ginen. Ezin nuen sinestu, eskualdean orain kirol hau praktikatzen bi ero ginen.

"... Diciembre de 2006, ETB1 y ETB2 emiten un reportaje que Juanan Legorburu nos realiza (a Frodo y a mí). Desde su casa de Lezo Iban Angulo tiene ocasión de verlo y se pone en contacto conmigo. A partir de aquí se suceden numerosos entrenamientos en grupo y carreras por todo el Estado. Ya éramos dos locos practicando este nuevo deporte...."

Gauza sendotzen joan zen eta hurrengo pausoa kirol talde bat osatzea izan zen. Gure Erki-degoko lehen txakurkros taldeari "Txakurkrosa Oarsoaldean" izena jarri genion, eta horrela federazioaren barrutik lan egiten hasi ginen.

2009. urtean Gipuzkoako Negu Federakundeak Patxi Azpiazu izendatu zuen Gipuzkoako Mushing (Lera Txakur Kirolen) komisioko lehen-dakari. Hemendik aurrera gure kirola indartzen eta ezagutarazten ahalegindu gara.

"...la creación del primer club de canicross de nuestra Comunidad Autónoma (Txakurkrosa Oarsoaldean) en Erreterria, da un nuevo empujón a esta actividad y el nombramiento de Patxi Azpiazu como presidente de la comisión de Mushing (deporte de perros de trineo) por parte de la Federación de Deportes de Invierno de Gipuzkoa contribuye a consolidar nuestro deporte y la prueba que organizamos en Erreterria en el calendario oficial de la Federación..."

Taldea sortu baino lehen Madrileko talde batean bi denboraldi bete nituen; 2007. urtean bertan nenbilela Madrileko txapeldunordea izatea lortu nuen.

Gure taldea sortzearekin batera penintsularen iparraldeko lehen txakurkros lasterketa antolatzea erabaki genuen. Horrela bada, 2008. urtean, lagun gutxi batzuen laguntzari esker eta nire koinatu, arreba, anaia, ama eta alaben laguntzari esker Erreterriako lehen Txakurkrosa antolatzea lortu genuen. Eskualdeko komertzio



Lehenengo lasterketa. Burgos 2006. Frodo eta Patxi Azpiazu.



Errenteria 2011. Txakurkros-txikia. Dana, Patxi, Kleo eta Beti. Errenteria, 2011.

txiki batzuen diru laguntzaz gain, Errenteriako Udalak Kirol Patronatuaren bidez hasieratik emandako laguntzarekin lasterketa bikain bat antolatzea lortu genuen. Lehen edizio honetan 43 partaide izan ginen lehian, estatuko toki askotatik etorriak (Madril, Bartzelona, Guadalajara, Burgos, Araba, Bizkaia, Soria, Ávila, Galizia...) eta 6 gipuzkoar. Gure lasterketa lehenengo ediziotik Espainiako Ligan puntuagarri izan da.

Bost urte geroago lasterketa sendotu egin da. Bertan Gipuzkoako Federatuen 2 Txapelketa lehiatu da eta gainera Espainiako Kopako azken proba izan da. Bertan 105 korrikalari izan genituen lasterketa nagusian eta beste 30 Txakurkros Txikian. Eta guztien artetik gipuzkoarrak 73 izan ziren. Horrek adierazten du gure kirol honek hain denbora gutxian nolako arrakasta izan duen.

"...en marzo de 2008 logramos organizar la 1ª edición del canicross de Errenteria, con 43 corredores (6 guipuzcoanos). Este año hemos celebrado la 5ª edición, con 105 corredores en la prueba principal y 30 en el Canicross-Txiki. De los que 73 fueron guipuzcoanos. Nuestro deporte ha enganchado a muchos corredores en pocos años..."

2011-2012 denboraldia amaitu berri hone tarako talde sendoa antolatu genuen, Ogi-Berri babesle nagusi izanik, eta Canun eta U-51 laguntzaile. Guztira 17 korrikalari aritu gara lasterketan lehian, eta emaitza onak lortu ditugu:

- Patxi Azpiazu: 1. Master Donostiako Txakurkrosean, 2. Zumaian, 2. Donibanen, 3. Errenterian eta Oiartzunen, 2. Gipuzkoako Txapelketan, 3. Espainiako Kopan....
- Joel Lamas: 5. senior Donostian, 10. Donibanen. Lesio batek ez dio utzi lasterketa gehiago egiten.
- Jose M^a Altuna: 4. Donibanen, 3. Zumaian, 2. Errenterian, Gipuzkoako Txapelketa "A" Beteranoetan.
- Naiara Casi: 1. Errenterian, 1. Oiartzunen. Gipuzkoako Ligako garailea.
- Jose Ramon Ortuoste: 3. Santanderren, 2. Espainiako kopan, 3. Gipuzkoako Txapelketan, Master mailan.
- Iban Angulo: Garaipen ugari lortu ditu Bikejoring modalitatean, eta 6. Donostian, 7. Donibanen, 5. Tolosan, 5. Zumaian (erorketa batek 3. Izatea galarazi zion), 7. Errenterian, 6. Oiartzunen. Gipuzkoako Ligan 3.



Aurtengo taldea. Ezkerretik eskuinera.

1. Txarli Perez, 2. Ángel Díez, 3. Jon Pérez, 4. Hegoi López, 5. Koldo Barrenetxea, 6. José Ramón Ortuoste, 7. Joel Lamas, 8. Iker Paredes, 9. Patxi Azpiazu, 10. Lorea Sagarzazu.

- Jon Perez: Junior mailan emaitza ezin hobekak lortu ditu Gipuzkoako 6 lasterketatik 5 irabaziz. Gainera Gipuzkoako txapelduna, Gipuzkoako Ligaren irabazlea eta Espainiako Kopan 2.

Taldeko beste korrikalariak maila ona eman dute nahiz eta podiumera igotzea ez lortu. Zorionak guztiei: Oscar, Iker, Txarli, Mikel, Lorea, Koldo, Hegoi, Lorena, Maider eta Angeli.

Korrikalariak zoriontzea ondo dago, baina txakurrek ere badute zorion horien merito zatitxo bat, beraien bultzada eta laguntasunik gabe ezinezkoa litzateke kirol honetan aritzea. Beraz Zorionak: Kaito, Kenzzo, Laister, Nikita, Menta, Lagun, Shena, Pol, Beti, Diego... eta bereziki Frodori, bera izan baitzen eskualdeko lehen txakurkros-txakurra.

"... esta pasada temporada hemos formado un grupo de 17 corredores, habiendo conseguido numerosas victorias y pódiums en las pruebas disputadas, tanto masculinas como



Iban Angulo.



Argazkia. Iker eta Kaito.

femeninas. A destacar las victorias en la Liga de Gipuzkoa de Jon Perez y Naiara Casi. Campeonatos de Gipuzkoa para Jon Perez y Jose M^o Altuna, 2^o y 3^o puesto en dicho campeonato para Patxi Azpiazu e Iban Angulo.

No podemos olvidarnos de los protagonistas principales. Sin nuestros perros no podríamos seguir adelante. Felicidades a tod@s ell@s: Kaito, Kenzzo, Laister, Nikita, Menta, Lagun, Shena, Pol, Beti, Diego..... y en especial a Frodo, nuestro primer canicrosser...".

Aipatu beharrekoa da 2010. urtean Iban Angulok Monegros Non Stop lasterketa irabazi zuela, 120 km 4 egunetan, bikejoring modalitatean.

Gure taldekideek Europako Txakurkros eta Bikejoring txapelketetan ere lehiatu dira: 2007. urtean Alemanian eta 2008. urtean Txekiar Errepublikan.

Txakurkrosa Oarsoaldean taldeak ireki duen bideari jarraituz, Gipuzkoan beste 3 talde eratu dira azken urte honetan, eta guztien artean Gipuzkoako 1. Txakurkros Liga sortu dugu. Gipuzkoako Liga 6 lasterketek osatu dute, Donostia, Donibane, Zumaia, Tolosa, Errenteria eta Oiartzun. Azken bi lasterketa hauen antolakuntza gure taldearen erantzukizuna izan da, eta nahiz eta lan handia izan den emaitza ezin hobea lortu dugu.

Datorren denboraldirako, berriro ere, talde sendoa izan nahi dugu, Txakurkrosean aitzindari, eta Errenteriako 6. lasterketa eta Oiartzungo 2.a antolatzen saiatuko gara, baldin eta behar ditugun diru laguntzak lortzen baditugu.

Kirol honetan murgildu nahi duenak, gurekin kontaktuan jarri besterik ez du e-posta edo telefono bidez; gainera gure web orrian eta Facebook-en behar duen informazioa aurkituko du.

Urrian hasiko da denboraldi berria, beraz nahi duenak badu denbora prestatzen hasteko.

Animo!!!



NKK Txakurkrosa Oarsoaldean
Posta Kutxa 5 (20100 ERRENTERIA)

e-posta: arroskenea@telefonica.net

web: <http://txakurkrosaoarsoaldean.jimdo.com/>

Facebook:

<http://www.facebook.com/profile.php?id=100003769000859>